

ERASOEN AURREAN, ZER?

ZER DA INDARKERIA MATXISTA?

Emakumeak* eta LGBTIQ+ pertsonok menderatzeko erabiltzen den indarkeria mota da, bere funtzioa sistema heteropatriarkala sostengatzea izanik. Azken hau, sistema sozial eta kulturala da, zeinaren bitartez emakumea-femeninoa eta gizona-maskulinoa identitate bakartzat hartzen dituen. Era berean, heterosexualitatea eta familia eredu nuklearra bizimodu natural, normal eta bakartzat onartzen ditu.

Indarkeria matxistaren barruan, indarkeria mota anitz bereizten dira:

- Indarkeria sexista: emakumeek, emakume izanagatik jasaten duten indarkeria (honen barruan kokatzen dira genero-indarkeria, familia barruko indarkeria sexista, sexu indarkeria eta jazarpen sexuala)
- Indarkeria matxistaren beste molde batzuk: transfobia, lesbofobia, homofobia, bifobia, etab.
- Genero barruko indarkeria: genero berdineko bikoteen artean ematen dena.

ZEIN ERASO MOTA EMATEN DIRA?

Modu askotakoak izan daitezke erasoak: fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, sexuala, birtuala, sinbolikoa... Era berean, batzuk modu agerikoan ematen diren bitartean, beste asko era ikusezinean jazotzen dira.

JARRAIBIDEAK:

Zer egin dezaket nik indarkeria matxista ez erreproduzitzeko?

1. **Zaindu zure jarrera eta portaera** matxistak. Zure pribilegioen kontzientzia hartu, identifikatu eta utzi.
2. Adi baboseoarekin eta zurea ez den eremua hartzearekin. Ez ukitu, ez heldu, ez egin iruzkin lizunik... inoren baimenik gabe.
3. Zutaz paso egiten badute, **ez zaitez astuna izan** eta joan.
4. Maite-jolasean ibiltzeak ez du zertan ezer gehiagotan bukatu. Edozein unetan **EZETZ** esan daiteke eta erabaki hori errespetatu behar duzu. Era berean, gogoan izan **baietza eman ez badizute, EZ dela**.
5. **Ez partekatu** inorekin norbaitek zuri helarazi dizun argazki intimorik. Hirugarren pertsona batena iristen bazaizu ere ez; **katea moztu**. Halaber, ez egin argazkirik edota ez grabatu inor bere baimenik gabe. Esan gabe doa, grabatzeko edota erretratuak ateratzeko baimena izanda ere, horrek ez duela esan nahi inori bidali ahal diozunik.
6. Ez dugu honelako edo antzeko jarrera erasokorrik onartuko eta hauen aurrean **erantzun egingo dugu**.

ERASOEN AURREAN, ZER?

Zer egin eraso baten aurrean?

Erasotzen bazaituzte:

1. Zuk ez duzu ezer egin eraso pairatzeko, **errua erasotzailearena** da.
2. Gogoratu, **defentsarako eskubidea** eta ahalmena duzula.
3. Egin kasu zure intuizioari. Ezeroso edo jazarririk sentitzen bazara, arriskuan egon zaitezkeela uste baduzu... **laguntza eskatu**.
4. Ahal bezain pronto **leku seguru batera joaten saiatu**.
5. Sexu eraso jasanez gero, nahiz eta oraindik argi ez izan salatuko duzun ala ez, gogora ezazu garbitzen bazara, jan edo edaten baduzu, zure arropa botaz gero... frogak ezabatzen ari zarela.
6. **Konfiantzazko norbaiti abisatu** zurekin egon dadin.

Lekukoa bazara:

1. Erasorik ikusten baduzu, erasotuari galdetu ea laguntzarik behar ote duen. **Ez epaitu**, ezta ezer inposatu ere.
2. Lokal, taberna edo txosna batean gertatuz gero, **arduradunari jakinarazi**.
3. Erasotzaileari argi utzi bere jarreraren aurka zaudela.
4. **Epaia eta iritziak ekidin**. Ez ezazu kontatzen ari dena zalantzatan jarri.
5. Ez utzi pertsona bakarrik horrela nahi ez badu edo bakarrik baino zurekin hobeto badago.
6. **Errespetatu bere erabakia** uneoro. Sexu eraso kasuan, azaldu garbitzen bada, jan edo edaten badu, arropa botaz gero... frogak ezaba ditzakeela.

BALIABIDEAK:

LAGUNTZA EDO INFORMAZIOA BEHAR BADUZU, HEMEN HERRIKO HAINBAT BALIABIDEEN KONTAKTUAK:

Udaltzaingoa:
092

Ertzaintza:
943 08 37 80

Gizarte
Zerbitzuak:
943 15 71 92

Parekidetasuna:
943 15 79 28

Emakumeen Txokoa:
688 75 10 00

BESTELAKO BALIABIDEAK:

Larrialdiak
112

SATEVI (24H)
900 84 01 11

SFUS
943 22 44 11

ERASO GUZTIEN AURREAN, JARRERA AKTIBOA HARTU!

